



## URETROPLASTIA

### Zer da uretroplastia?

Kirurgia-prozedura bat da; estenosia (uretraren estutzea) zuzentzeko egiten da, txiza behar bezala egitea eragozten baitu horrek. Ebakuntzaren helburua maskuriko zunda edo pubis gaineko taila kendu ahal izatea da, halakorik badaramazu, eta, hala, zure mikzio-kalitatea hobetzea.

### Nola egongo zara kirurgiaren ostean?

Lehenengo 24-48 orduetan erabateko atsedena egin beharko duzu, eta ospitalean 3-5 egun emango dituzu, kirurgia motaren arabera.

Etxean maskuriko zunda eraman beharko duzu 2-3 astez, puntuak orbain daitezten. Zunda poltsa bati lotuta egongo da, eta bertan pilatuko da gernua.

Normala da lehen egunetan:

- Gernuarekin odol pixka bat isurtzea (hematuria).
- Ebakuntzaren eremuan hematoma bat izatea.
- Maskuriko espasmoak izatea (gernua zundatik kanpo ateratzea).

Zunda kendu ondoren, lehenengo egunetan, baliteke txiza maizago egitea eta/edo min pixka bat izatea (polakiuria eta disuria).

### Zer egin behar dut etxean?

- Atsedena erlatiboa, zunda daramazun bitartean (pasea zaitezke, baina ahalegin gogorrik egin ez). Hilabetez, ez egin ariketa bizirik edo jarduera astuniki.
- Egunean behin zauria sendatu beharko duzu, pobidona iododunarekin (Betadine®). Zauriaren eremuak lehorra egon behar du.
- Ez da beharrezkoa puntuak kentzea, 20-30 egunen barruan desegingo dira.
- Medikiak analgesia errezetatuko dizu, minik baduzu hartzeko, eta antibiotikoa.
- Hartu likido asko, 2-3 litro egunean.
- Lehen egunetan (bi-hiru egunez), egin dieta biguna, eta pixkanaka itzuli zure betiko dietara.
- Beste tratamendu bat hartu ohi baduzu, medikuak esango dizu noiz hasi behar duzun hura berriz hartzen.
- Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, joan larrialdietako medikuarengana:
  - Sukar handia (>38° C).
  - Hematuria edo hemorragia handia.
  - Gernu-erretentzia.
- Edozein zalantza duzula, deitu Urologia Zerbitzura, eta kontsultatu profesional taldeari edo joan Larrialdietara.

### Zer ondorio izango du zure jarduera sexualean?

- Uretroplastia mota batzuek erekzioaren disfuntzioa eragin dezakete, baina sendatu egiten da kasu gehienetan.
- Uretroplastia mota batzuen kasuan, kirurgia egin ondorengo lehenengo asteetan erekzioak eragozteko edo murrizteko pilulak hartu beharko dira.
- Kirurgiaren ondoren, hilabete igarota berrekin ahal izango diozu jarduera sexualari.

**Teknika honek zenbait konplikazio sor ditzake, eta jakinaren gainean egon behar duzu:**

- Estenosia erabat ez sendatzea.
- Hemorragiak.
- Gernu-infekzioak.
- Gernu-erretentzia gerta daiteke; maskuria zundatuta konponduko da hori.
- Uretrako fistula (uretraren eta azalaren arteko komunikazioa), eta, ondorioz, gernua edo zornea ateratzea.